

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana



2021eko iraila

ISEK-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak onartua, 2021eko uztailaren
21eko osoko bilkuran

1.3. SUSTAPENA	IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EKINTZAK FINANTZATZEA.	50
1.4. SUSTAPENA	PARTE-HARTZE POLITIKOA BERMATZEA.....	51
2.1. SUSTAPENA	GIZARTE- ETA ENPRESA-SARE SENDO BAT SORTZEN LAGUNTZEA, IRISGARRITASUNERAKO IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK EMANGO DITUENA.	52
2.2. SUSTAPENA	GIZARTE-BERRIKUNTZAREN BIDEZ LAGUNTZA- ETA ARRETA-EREDUAK BULTZATZEA.	54
2.3. SUSTAPENA	FORMULA ALTERNATIBOEN BIDEZ GATAZKAK PREBENITZEA ETA KONPONTZEA.	55
5)	AURREKONTUA	56
6)	PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	57
7)	ERANSKINAK	59
7.1..	ERABILITAKO METODOLOGIA	59
7.2..	ZEHARKAKOTASUNA	61

Grafikoen aurkibidea

Grafikoa 1.	Irisgarritasunean identifikatutako zailtasunak.	10
Grafikoa 2.	Ekintza Planarekin bat datozen Garapen Jasangarriko Helburuak.....	15
Grafikoa 3.	Estrategiaren jarduera-eremuak	16
Grafikoa 4.	Estrategiaren eta Ekintza-Planaren printzipioak.	20
Grafikoa 5.	Estrategiaren helburuak eta Ekintza Planaren ardatzak. ..	23
Grafikoa 6.	Ekintza Planaren 6 ardatzak.....	25
Grafikoa 7.	Ekintza Planaren ildoak.	32

SARRERA

Justizia, kohesioa, duintasuna eta inklusioa euskal politika publikoen barruan kokatzen diren balioak dira, eta plan honen eta beste plan batzuen helburu gisa ez ezik, bidean ere egon behar dute, beste faktore batzuen mende egon gabe. Horrela, euskal gizartea balio horiek defendatzeagatik bereizi izan da, bai ondo garatutako elkarte-ehunaren bidez, bai horien aldeko apustua egin duten erakunde eta politiken bidez.

Politikaren adibide bat da 2017an Euskadik irisgarritasun unibertsala sustatzeko konpromisoa hartu zuela, Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluaren ezohiko osoko bilkuran Lehendakariak egindako adierazpenaren bidez. Osoko bilkura hori Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen onarpenaren 20. urteurrenaren oroimenez egin zen. Arau aitzindari horrek pertsoneri gizarte- eta komunitate-bizitzan erabat integratzea eta parte hartzea eragozten dieten oztopo fisikoekin eta komunikazio-oztopoekin amaitzea proposatu zuen. **Gizarte justuak gizarte irisgarria izan behar du.**

Konpromiso horrek Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia baten oinarriak ezartzea suposatzen zuen. Estrategia hori zeharka, diziplina eta sektore anitzetan garatuko da, eta **irisgarritasun-kontzeptu berri bat** jasoko du, diskriminazio-mota guztiak saihesteko eta Euskadi gizarte inklusibo eta justu bat, modernoagoa eta hobea izateko aukera emango duena. Estrategia horrek oinarri batzuk izango ditu, Euskadi erabat irisgarria izan dadin, ez bakarrik hiri-espazioei, eraikin publikoei, lantokiei eta etxebizitzetara dagokienez, baita komunikazio digitalaren aukera berriak irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoei eta herritarren eskubide guztiei dagokienez ere.

Hala, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2019ko abenduaren 11n egindako bileran, aho batez onartu zuen "Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategia" dokumentua, lehendakariak hartutako konpromisoari erantzuteko, eta kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei irisgarritasuna bermatzea euskal gizarte osoak, jardun-arlo guztietatik jardun integral eta integratzailearen bitartez, bere gain hartu behar duen konpromisoa dela, Eusko Jaurlaritzak Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal

Estrategia onartzeko erabakia hartu zuen, 2020ko otsailaren 4an egindako bilkuran.

Estrategian, funtsezko erreferentzia gisa jasotzen zen Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak dakarren konpromisoa, zeinak estatuei eskatzen baitie neurriak har ditzatela desgaitasunen bat duten pertsonak, gainerakoek baldintza berberetan, inguruneetara, komunikazioetara eta zerbitzuetara sarbidea izan dezaten ziurtatzeko. Baina Estrategiak konpromiso hori zabaldu ere egiten du, unibertsaltasunari begira, eskubide horiek pertsona guztiei bermatu ahal izateko. Ikuspegi eguneratua da, eta ez du kontuan hartzen irisgarritasuna desgaitasuna duten pertsonei soilik dagokiela.

Estrategia eta berau garatzen duten planek, azken batean, irisgarritasunaren kontzeptu hau, desgaitasuna duten pertsonentzako oztopoak kentzea gisa ulertzen dena, gainditu nahi dute kontzeptu zabalago baten bidez, ingurune, prozesu, produktu, zerbitzu eta komunikazio guztiak pertsona guztientzat erabat irisgarriak, erabilgarriak eta ulergarriak izan daitezzen.

Behin Eusko Jaurlaritzak Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategia onartuta, eta erakunde-adierazpenen eta arau-esparruaren babesa jasota, Euskadiko irisgarritasun unibertsalaren irrika errealitate bihurtu behar da, eta **pertsona guztiek ingurune, produktu, zerbitzu eta informazioetara irispidea izateko eta horiek erabiltzeko duten eskubidea modu aske eta autonomoan, gure gizartearen esparru guztietan**, gauzatzeko aukera emango duten ekintzen multzoa aurkezten da.

Ekintza Plan hau COVID-19aren osasun-krisiarekin bat etorri da denboran. Normaltasun berri bati buruzko mezu instituzionalek auresuposatzen dute ezagutzen genuena ez dela itzuliko, edo, itzultzekotan, ez dela modu berean izango. Onarpen horrek garrantzi handia du, eta aldaketak ekarriko ditu ia arlo guztietan: kontsumitzeko moduan, lan egiteko moduan, dibertitzeko moduan, harremanak izateko moduan, mugikortasunean, garraioan... Baina, ezinbestean, aldaketak egon arren, Euskadik gizarte gisa hartu dituen konpromisoak bete behar dira. Politikek pertsonen beharrei erantzun behar diete, baita krisi

ekonomiko edo sanitarioaren garaian ere. Testuingurua krisian egon daiteke, baina ez balioak.

Testuinguru horretan aldaketa nabarmenak eta iragartzeko zailak, izaera sozialekoak edo teknologiaren inplikaziozkoak aurreikusten dira, eta horrek indartu egiten du Estrategia sortzeko erabiltzen zen ideia, tresna dinamiko gisa, eta, nolabait, zeharkako irisgarritasun unibertsala lortzera bideratutako ekintzen multzorako oinarritzko dokumentu inspiratzaile gisa. Plana, beraz, lan-tresna irekia eta malgua da, eta, bere balio, printzipio eta helburuen babesean, erronka berriei erantzun behar die.

Laburbilduz:

Estrategiaren eta Ekintza Planaren arabera, irisgarritasuna pertsona ororen eskubidea da, desgaitasun-egoeran egon edo ez. **Hau pertsona guztientzako plana da (unibertsala).**

Planak pertsonak eremu guztietan dituzten beharrei erantzun nahi die, irisgarritasuna hirigintzara edo eraikuntzara mugatzea gaindituz. **Plan honek arlo guztiei eragiten die (zeharkakoa).**

Plana arlo bakoitzean eboluzionatuko duen eta garatuko den prozesu baten abiapuntutzat hartu behar da. Prozesu horrek oztopo fisiko eta mentalak, sozialak eta instituzionalak bota beharko ditu, gizarte osoa eta zeharkakotasunerako eta unibertsaltasunerako eragileak inplikaturaz joango da, eta denboretara egokituko da. **Plan dinamiko eta inspiratzailea da.**

1) IRISGARRITASUNAREN KONTZEPTU BERRI BATERANTZ

Ekintza-plana Irisgarritasun Unibertsaleko Euskadiko Estrategiaren tresna da, eta "ekintza positiboko neurri gisa balio behar du, pertsona guztientzako aukera- eta tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren oinarritzko printzipioak bermatzeko, gizartean eta komunitatean garapen osoa, autonomia eta askea izan dezan, eskubide guztiak benetan erabiliz".

Irisgarritasunaren ikuspegi unibertsal eta zeharkako horrek pertsonen beharrak kontuan hartzea eskatzen du, inguruneak, produktuak, zerbitzuak eta informazio- eta komunikazio-elementuak eskubideen erabilera mugatu ez dezaten.

Talde zehatzetan ardaztutako ikuspegiak gainditzea, pertsona eta egoera bakoitza desberdina dela ulertzea, begirada unibertsala izatea, hain zuzen ere, erronka horiei erantzun behar die Ekintza Plan honek eta berau garatuko duten ondoz ondoko planek.

Planak aukera eman behar du gizartearen eremu guztietako jarduerak eta politikak zeharkakoak izan daitezen, eta Euskadi pertsona guztientzat irisgarri izateko helburu komuna lortzera bideratu behar ditu.

1.1. AURREKARIAK

2018ko lehen seihilekoan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak (ISEK) aurrera egin zuen strategiaren diagnostikoan eta diseinuan, eta, horretarako, irisgarritasunari lotutako erronkaren tamaina marraztu nahi izan zuen.

Diagnostiko horrek egiten duen marrazkiak agerian uzten du Estrategia bera eta Plana eraikitzeke prozesuan asko aurreratu dela, ez hainbeste ematen dituen emaitzengatik, baizik eta ematen duen ikuspegiagatik; izan ere, irisgarritasunaren kontzeptu gainditu baten marrazki partziala da, eta espazio fisikoan eta hirigintzakoan jartzen du arreta. Hau da, abiapuntuko egoera da

irisgarritasun-kontzeptu bat maneiatzea, alderdi fisikora oso mugatua eta desgaitasunarekin oso asimilatua. Plan honetara daraman prozesua unibertsaltasun gutxiko eta zeharkakotasun gutxiko irisgarritasunaren kontzeptuarekin hasten da, kontzeptu hori oraindik ere oso txertatuta baitago Planak proposatzen dituen ekintzen garapenean hain zuzen ere arduratsuak izan behar duten eragile askorengan.

Dokumentu- eta estatistika-iturriak aztertzeaz gain, funtsezko eragileekin elkarriketak egin ziren, eta informazioa biltzeko fitxa bat betetzeko eskatu zitzaizen hainbat elkarte eta erakunde publikori. Era berean, talde-dinamikak egin ziren (esparru publikoko talde tematikoa eta esparru pribatuko talde tematikoa), informazioa zabaltzeko. Prozesu horretatik abiatuta, ondorio hauek atera ziren:

- Oro har, elkarteek aitortzen dute asko aurreratu dela irisgarritasunaren arloan, baina duela 20 urte baino gehiago onartu zela Legea, eta oraindik asko dago egiteko. Kasu askotan, irisgarritasunaren arloko sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-falta antzematen da. Oraindik ez da lehentasunezko alderdi gisa planteatzen.
- Irisgarritasuna ez da zeharkako kontu gisa ulertzen. Praktikan, "irisgarritasun puntuala" lantzen da, ez da benetan "irisgarritasun unibertsala" aplikatzen.
- Askotan, irisgarritasunaren kontzeptua irisgarritasun fisiko gisa ulertzen jarraitzen da, eta ez da kontuan hartzen ikusmenekoa, entzumenekoa edo kognitiboa. Horregatik, irisgarritasun fisikoaren hobekuntzan gainerakoetan baino gehiago aurreratu da.
- Desberdintasun nabarmenak daude udalerrien artean.
- Dokumentu-iturrien ezaugarri nagusia heterogeneotasuna da. Irisgarritasunari buruzko informazioa oso sakabanatuta dago hainbat iturritan, eta ez da osoa. Kasu askotan informazioa zaharkituta dago jada. Gainera, zaila da egoera kuantifikatzea, analisi asko pertzepzioetan oinarrituta baitaude (ezagutza "informala").

1.2. FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

Gure gizartea pertsona desberdinek osatzen dute, ezintasun-egoeran egon edo ez, bizitzako une desberdinak dituztenak, bizitzako uneraren batean egoera desberdinak dituztenak. Pertsonak ez dira gaitasun edo muga berberekin zahartzen, desberdin zahartzen dira. "Pertsona guzti-guztiok gaitasun funtzional desberdinak ditugu eta izango ditugu gure bizitzan zehar¹."

Estrategia eta Ekintza Plana giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren arau-esparruaren barruan kokatzen dira, eta, era berean, OMEren aurreikuspenekin bat datoz, gizarte-partaidetza pertsonak ingurune orokorrean eta komunitarioan "funtzionatu" eta, bere gaitasunetik edo beharrezko laguntzetatik abiatuta, bizi eta moldatu ahal izateko kate gisa ulertzen baitu. Ez dago desgaitasuna duen pertsonarik, ingurune, baliabide edo zerbitzu desgaitzaileak baizik. Horrela, bada, desgaitasuna egoera bat da, eta hura sortzen duten faktoreen arteko erlazio konplexuak, pertsonaren barrukoak eta kanpokoak direnak, egoera horietan dauden pertsonak bezain desberdinak diren egoerak eragiten ditu.

Ingurune irisgarriari esker, pertsonak, muga fisikoak edo gaitasun-mugak dituzten arren, autonomia handiagoz funtziona dezakete, baita haien mendetasun-maila murriztu ere. Azken batean, beren eskubideak hobeto balia ditzakete.

Irisgarritasun Estrategiaren diagnostikoak eta esparru orokorrak gaindituztat jotzen dute irisgarritasun kontzeptuaren ikuspegi asistentzialista. Pertsona guztiok gara eskubide eta betebeharren subjektu, eta guztiok gauzatu ahal izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak horiek osotasunean, eta, era berean, eskubide eta betebeharrak behar bezala baliatzearen erantzule izan behar dugu. Irisgarritasun unibertsala herritar guztien aurrerabiderako eta onerako ekarpena da.

¹ Osasun Sailaren Marko Estrategikoa 2021-2024.

Estrategian, arau-testuinguruaren atalean, erreferentziatzeko hainbat arau eta kontzeptu aipatzen ziren, estrategia garatzeko eta Ekintza-Plan honetarako oinarri gisa balio dutenak. Horien guztien artean, nabarmentzekoa da **Nazio Batuen desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa**, 2006ko abenduaren 13an onetsia, nazioarteko lehen tresna loteslea izan zena giza eskubideen esparruan, eta estatuei exijitzen die desgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak babestu eta zaindu ditzatela².

Laburbilduz, eta Estrategiak aurreikusi bezala, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Pertsona guztientzako diseinuaren kontzeptuek honako ondorio hauek dituzte:

- Irisgarritasun unibertsalak baldintzak bermatu behar ditu ibilbide, ingurune, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, tresna, lanabes, eta gailu guztiak pertsona guztiek, salbuespenik gabe, erabil ditzaten, betiere informazio ulergarria hizkuntza argian eskainiz, eta, hala badagokio, gizartearen ahalik eta maila handienak ulertzea errazten duen beste edozein formatutan, hala nola irakurketa errazeko formatuan.
- Irisgarritasun unibertsala "irisgarritasun-kate" osoan hartu behar da kontuan.
- Irisgarritasun unibertsalak desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuoten eredutik, desberdintasuna ezabatzeko edo murrizteko ekintza positiboko formula gisa, pertsona guztientzako irisgarritasun-eredura igarotzea dakar.

² Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Nazio Batuen 2006ko Konbentzioaren 9. artikulua: "Estatu Alderdiak neurri egokiak hartuko dituzte, pertsona desgaituek, gainerakoen baldintza berberetan, ingurune fisikorako, garraiorako, informaziorako eta komunikazioetarako irispidea izan dezaten, informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak barne, bai eta jendeari irekitako edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuetarako irispidea ere, hiriguneetan nahiz landa-guneetan. Neurri horiek, sarbide-oztopoak eta -eragozpenak identifikatu eta ezabatzea barne, honako hauei aplikatuko zaizkie, besteak beste: eraikinei, bide publikoei, garraioari eta kanpoko eta barruko beste instalazio batzuei, hala nola eskolei, etxebizitzei, mediku-instalazioei eta lantokiei; eta informazio-, komunikazio- eta bestelako zerbitzuei, zerbitzu elektronikoak eta larrialdietakoak barne."

- Irisgarritasun unibertsala arau orokorra da, eta ez etengabeko salbuespena.
- Ezin da esan "arrazoizko doikuntzak" termino juridiko zehaztugabea denik jarraibide eta irizpide argi eta objektiborik gabe.

Estrategiak eta bere Ekintza Planak beste printzipio edo kontzeptu batzuekin bat egitea eskatzen dute, begiraden eta politiken konbergentzia sustatzeko, jarrera-egokitzapenei ekiteko eta araudian jasotzen ez diren egoerei aurrea hartzeko. Kontzeptu horiek ez dute inola ere ordeztzen irisgarritasunaren kontzeptua, ez eta irisgarritasunerako eskubidea ere, eta ez dira inola ere ulertu behar araudia betetzeko eskakizun-murrizketatzat. Erabilgarritasuna, ulergarritasuna, adiskidetasuna, zerbitzu publikoaren kalitatea edo laguntza-eredua dira Ekintza Planean irisgarritasunarekin batera agertzen diren kontzeptu horiek.

Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH), 2000. urtean nazioarteko komunitateak sinatutakoak – 2015. urterako mugarekin –, ibilbide bat behar zuten, eta, horrela, NBEk (2015) Garapen Iraunkorrari buruzko 2030 Agenda onartu zuen, herrialdeek eta pertsonak beren bizitzak hobetzeko bide berri bati ekin ziezaioten, inor atzean utzi gabe. Agenda honek Garapen Jasangarriko 17 helburu ditu. Garapen Jasangarriaren Helburuek beren gain hartzen dituzte amaitzeke dauden MGHei buruzko zereginak, eta asmo handiagokoak, parte-hartzaileagoak eta, batez ere, unibertsalagoak dira. Estrategia eta Ekintza Plana estuki lotuta daude 17 helburuetatik 6rekin:

- 3. helburua: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
- 4. helburua: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
- 8. helburua: Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
- 9. helburua: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
- 11. helburua: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
- 16. helburua: Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea.

Grafikoa 2. Ekintza Planarekin bat datozen Garapen Jasangarriko Helburuak.



1.3. JARDUERA-EREMUAK ETA ZEHARKAKOTASUNA

Planean planteatutako jarduera-eremuak onartutako Estrategian aurreikusitakoak dira, eta bat datoz funtsezko erreferentzia-esparruekin³.

Eremu horiek une jakin batean egindako zeharkako ikuspegi bati erantzuten diote, baina abiapuntutzat hartu behar dira, plan dinamiko batean, hargatik eragotzi gabe horiek, aldi berean, bikoiztuta egotea, jarduketa jakin batzuei erantzuteko, sailen egituretan izandako aldaketengatik edo arlo batzuetan azalpen gehiago behar izateagatik, hala nola, kirola, teknologia edo sustapen ekonomikoa.

Grafikoa 3. Estrategiaren jarduera-eremuak



Iturria. ISEK-IKEI (2019). EAEko Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategiaren definizioaren hurbilketa.

Izan ere, gaur egun, sail askotan identifikatutako gobernu-plan estrategikoen (ikus 2. eranskina), modu batera edo bestera, irisgarritasuna dute helburu edo politika.

Hala ere, kontzeptuaren unibertsaltasuna, bereziki irisgarritasun kognitiboari dagokiona, apenas jasotzen da plan horietan, eta agerian uzten du esparru

³ Aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala bermatzen diren jardun-eremuak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua). Desgaitasunari buruzko 2010-2020 Europako Estrategiaren lehentasunezko jarduera-eremuak.

orokor baten beharra, eremu guztietako garapenak inspiratuko dituen planen plan batena.

2) PLANAREN PRINTZIOAK ETA HELBURUA

Diagnostikoa, Estrategia eta Ekintza-Plana ekintza positiboko neurriak dira, eta pertsona guztientzako aukera- eta tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren oinarritzko printzipioak bermatzera bideratuta daude, gizarte- eta komunitate-ingurunean haien garapen osoa, autonomia eta askea lor dadin, haien eskubide guztiak benetan baliatuz.

ISEKek (Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua) uste du beharrezkoa dela Euskadiri mekanismoak ematea politikak egokitzeko eta "Euskadi pertsona guztientzat irisgarria" izan dadin lortzeko jarduera eraginkorrak hartzeko.

Estrategiaren Ekintza Planak Estrategiak berak bere gain hartzen dituen funtsezko printzipioak ezartzen ditu, eta, funtsean, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak printzipio horiei buruz egiten duen definiziotik abiatuta egiten du hori.

- **Aukera-berdintasuna:** Desgaitasuna dela-eta ez izatea diskriminaziorik, ez zuzenekorik ez zeharkakorik, diskriminazio horretan sartzen delarik edozein bereizketa, bazterketa edo murriztapen, desgaitasuna duten pertsonen otopatzen diena politikaren, ekonomiaren, gizartearen, lanaren, kultuaren edo gizarte zibilaren arloan edo beste arlo batean dagozkien giza eskubide eta funtsezko askatasun guztiak baldintza berdinekin aitortzeko, goza ditzaten edo balia ditzaten (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- **Bizimodu independentea:** Egoera bat da, zeinean desgaitasunarekiko pertsonak bere existentziaren gainean erabakitzeke duen ahala baliatu eta bere komunitateko bizimoduan aktiboki parte hartzen baitu, nortasuna libreki garatzeko eskubidearen arabera (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua)..
- **Pertsona guztientzako diseinua:** Jarduera honen bitartez, hasiera-hasieratik pentsatzen edo proiektatzen dira, ahal den neurrian, inguruak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, egitasmoak, gailuak edo tresna, pertsona guztiek ahalik eta

gehien erabiltzeko moduan, ez egokitzerik ez diseinu espezializaturik beharrik gabe. "Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua" erabiltzen denean, ez dira baztertzen desgaitasunen bat duten pertsona jakin batzuen multzoentzako laguntza-produktuak, behar badituzte (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).

- **Zeharkakotasuna:** printzipio honen bidez, herri-administrazioek gauzatzen dituzten jarduerak ez dira izango pertsona horientzako ez beste inorentzako plan, programa eta ekintza espezifikoak egitea bakarrik, zeren eta jarduera publikoaren eremuetako edozeinetako ekintza-politika eta -lerro orokorrak lantzea ere sartzan baita hor, eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrianak eta eskariak ere kontuan hartuko baitira hartara. (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- **Eragile guztien inplikazioa:** eraldaketa sozial eta kulturalerako betekizuna, desgaitasunen bat duten pertsona guztien parte-hartzea eta berdintasuna ahalbidetuko duten gizarte eta ingurune erabat inklusiboak lortzeko (Euskadiko desgaitasunari buruzko liburu zuria).
- **Gizarteratzea eta normalizazioa:** Gizarteratzearen printzipioaren bidez, gizarteak guztien onerako eta gizartearen kohesiorako balio konpartituak sustatzen ditu, eta bide ematen du desgaitasunen bat duten pertsona guztiek aukera izan dezaten bizimodu politikoan, ekonomikoan, gizartekoan, hezkuntzakoan, lanekoan eta kulturakoan osoko parte har dezaten eta gainerakoekiko berdintasunezko bizi-baldintzak goza ditzaten. Normalizazioaren printzipioaren arabera, desgaitasunarekiko pertsonak aukera izan behar dute baldintza berdinekiko bizimodua eramateko, beste edozein pertsonak eskura dituen leku, eremu, ondasun eta zerbitzu berberak eskuratuz (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- **Elkarrizketa zibila:** Printzipio honen bidez, desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien senitartekoen erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arauak ezarritako baldintzen arabera, desgaitasunen bat duten pertsonak direla-eta gauzatzen diren politika ofizialak lantzen, gauzatzen eta politika horiek nola gauzatzen diren behatzen eta ebaluatzen; politika horiek, nolana ere, bermatu behar dute desgaitasunen bat duten umeei askatasunez adierazi ahal izatea beren iritzia eragiten dieten gai guztiei buruz, eta beren desgaitasunari eta adinari dagokion laguntza jaso ahal izatea eskubide hori baliatu ahal izateko (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).

Grafikoa 4. Estrategiaren eta Ekintza-Planaren printzipioak.



Ekintza Plana Estrategiaren ondorio da, eta Helburu Orokorrari eta bertan planteatutako Helburu Estrategikoei erantzutea du helburu. Erantzun horiek Planak ematen ditu, ardatz batzuetatik abiatuta, ezarri beharreko ekintzen multzoa, horien arduradunak, dagozkion baliabideak eta egutegiak definituz eta zehaztuz.



HELBURU OROKORRA

Pertsona guztiek ingurune, produktu, zerbitzu eta informazioetara irispidea izateko eta horiek erabiltzeko duten eskubidea gauzatzea, modu libre eta autonomoan, gure gizartearen esparru guztietan.

3) EKINTZA PLANAREN ARDATZAK ETA ILDOAK

Irisgarritasun Unibertsaleko Euskadiko Estrategia sei helburu estrategikotatik abiatuta eraikitzen da: Gobernantza, Kontrola, Sentsibilizazioa, Prestakuntza, Berrikuntza eta Sustapena. Ekintza-plan honen zeregina da helburu horiek betetzen laguntzea, eta, horretarako, ezarri beharreko ekintzen multzoa, noiz egin behar diren, nork egin behar dituen edo ekintzen arduraduna nor den definitu eta zehaztea, bai eta horiek gauzatzeko behar diren baliabideen kalkulua egitea ere.

Horrela, Planean garatu beharreko ekintzak sei Ardatzen inguruan egituratzen dira; eta ardatz horiek Estrategian artikulatutako sei Helburuei ematen zaien erantzun operatiboa dira. Planaren Ardatzak, beraz, bat datoz Estrategiaren Helburuekin, baina bilakaera eta egokitasun jakin bat izan dute, hiru logikaren ondorioz:

- Parte-hartzea. Estrategiak hainbat eragileren parte hartzearen eta ereduaren eraikuntza partekatuaren alde egiten du. Hala, Ekintza Planeko esku-hartzeek Estrategiaren diseinuari eta formulazioari buruzko kontrasteak eta balorazioak jasotzea aurreikusten zuten, funtsezko eragileekin, edukiz eta koherentzia operatiboz hornitzeko. Horrela, eragile horien ekarpenak jasotzea eta horiei zentzua ematea egokia dela ondorioztatzen da.
- Estrategiaren printzipioekiko koherentzia. Estrategiaren unibertsaltasuna eta zeharkakotasuna argi geratu behar dira helburuen formulaziotik bertatik.
- Hizkuntza argia. Estrategiak eta Planak hizkuntza argiaren alde egiten dute. Beraz, Helburuak premisa horren arabera formulatu eta, hala badagokio, egokitu behar dira.

Hiru logika horiei zeinu-hizkuntza gehitu behar zaie hala eskatzen duten ekintzetan, gainerako hizkuntzei emandako tratamendu berarekin eta ezagutza orokortzen laguntzeko modu gisa.

Funtsean, Plan hau Estrategiaren Helburuei erantzuten dieten ardatzekin egituratzen da, helburuekin bat eginez, baina terminologia neurri batean egokituz eta planteatutako hiru logikekin koherentea den arkitektura eskainiz, horiek ere Estrategiaren logikak baitira. Gainera, laugarren logika bat dago, operatiboa, eta horren ondorioz, Ekintza Planeko Ardatzak antolatu eta taldekatu egiten dira, helburu orokorra lortzera modu argian bideratzeko. Sei ardatz horiek hauen inguruan antolatzen dira: zer egitura behar den, zer aldaketa behar diren eta zer egin behar den irisgarritasuna sustatzeko.

Grafikoa 5. Estrategiaren helburuak eta Ekintza Planaren ardatzak.



Berrikuntza

Berrikuntzaren bidezko irtenbideak

Grafikoa 6. Ekintza Planaren 6 ardatzak.



BEHARREZKO EGITURA.

Zer egitura behar den ekintzak gauzatzeko. OINARRIA da.

- 1. Gobernantza: irisgarritasunaren kudeaketa.**
- 2. Eskubideak bermatzeko esparru juridikoa.**



BEHARREZKO ALDAKETAK.

Zer aldaketa egin behar diren azken helburuetara iritsi ahal izateko. BIDEA dira.


- 1. Erantzukidetasuna eta partaidetza.**
- 2. Irisgarritasunean trebatzea.**



IRISGARRITASUNA SUSTATZEA.

Nora iritsi nahi den, HELBURUA da.

- 1. Irisgarritasuna sustatzea.**
- 2. Berrikuntzaren bidezko irtenbideak.**



3.1. BEHARREZKO EGITURA



Zer egitura behar den azken helburuak lortzeko behar diren aldaketak egiteko. Zer kudeaketa egon behar den, zer lidergo, zer funtzio, ekintzen zer jarraipen eta nola indartu behar den esparru juridikoa.

1. EGITURA - GOBERNANTZA: IRISGARRITASUNAREN KUDEAKETA

*GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SORTZEA
ESTRATEGIAREN BURU IZATEKO ETA EZAGUTZAK
SORTZEKO.*

(6. Helburu Estrategikoa GOBERNANTZA)

Arrazoi operatiboak direla eta, Estrategian eta Planean Gobernantza ardatz gisa hartzen da, eta bere eginkizunei ekiteko egitura eta baliabideak eman nahi zaizkio. Estrategiaren zeharkako helburua da lidergoa sortzea eta Euskadin irisgarritasunari buruzko ezagutza sortzea. Baina gobernantza erakunde guztien kontua da; ikuspegiak irisgarritasunaren zehaztapena gainditu behar du, eta eragile guztiekiko zeharkako erantzunkidetasuntzat hartu behar du.

Helburu hori lortzeko, Ekintza Planak ardatz bat ezartzen du, lidergo instituzionala sendotzeko ildoak dituen, argi eta garbi esleitutako erantzukizunak dituen, eta ondo definitutako funtzioak dituen, baliabideak izango dituen, Planaren kudeaketa integrala gauzatzeko eta Euskadiko irisgarritasunari buruzko ezagutza sortzeko eta partekatzeko.

1.1. EGITURA. LIDERGO INSTITUZIONALA ETA POLITIKOA IZATEA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO EUSKADIKO ESTRATEGIAREN EKINTZA-PLANAREN EGITURA ARDURADUNA SORTZEA.

1.2. EGITURA. EUSKADIKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA EZAGUTZA SORTZEA ETA PARTEKATZEA.

2. EGITURA – ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESPARRU JURIDIKOA

*IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ARLOAN
INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETETZEN DELA
BERMATZEA.*

(1. Helburu Estrategikoa KONTROLA)

Irisgarritasunaren diagnostikoak islatu du irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia modu desberdinean betetzen dela, eta, ondorioz, Estrategiaren helburuetako bat da eskubideak benetan bermatzeko esparru juridikoari heltzea.

Estrategiaren helburua da indarrean dagoen araudi sakabanatua antolatzea, kontzeptuak argitzea eta jarduketan segurtasun juridikoa bermatzeko jarduera-irizpideak ezartzea, arauen aplikazio egokia errazten duten tresnak sortzea eta egon daitezkeen desbideratzeak zuzentzeko beharrezkoak diren prozedurak eta laguntzak diseinatzea.

2.1. EGITURA. ARAUDIA BERRIKUSTEA, KONTZEPTUAK ARGITZEKO ETA JARDUTEKO IRIZPIDE UNIFORMEAK EZARTZEKO.

2.2. EGITURA. ARAUDIA BEHAR BEZALA INTERPRETATZEN ETA APLIKATZEN LAGUNDUKO DUTEN TRESNAK ETA MEKANISMOAK SORTZEA.

2.3. EGITURA. ARAUDIA BETETZEKO FIGURAK ETA ESKUMENAK SORTZEA.

3.2. BEHARREZKO ALDAKETAK



Zer aldaketa egin behar diren pertsonengan, erakunde publiko eta pribatuetan, jarreretan, balioetan, ikuspegiari, gaikuntzan, ingurune irisgarria eraikitzeko eta azken helburuetara iristeko.

1. ALDAKETA - ERANTZUKIDETASUNA ETA PARTAIDETZA

*GIZARTE OSOAREN ERANTZUKIDETASUNA,
PARTAIDETZA ETA KONTZIENTZIAZIOA
AREAGOTZEA.*

(3. Helburu Estrategikoa SENTSIBILIZAZIOA)

Diagnostikoak, Estrategiari bide eman zionak, ingurune, produktu eta zerbitzu irisgarrien beharrekiko sentsibilitate falta zegoela ondorioztatu zuen. Horregatik, irisgarritasun unibertsalarekin bat datozen balioak dituen gizartea lortzeko helburua zehaztu zen, topaketen eta partaidetza-dinamiken bidez.

"Sentsibilizazio" helburu horri erantzuteko, ulertu behar da gizarteak arlo publikoa kontuan hartzen duela, baita bertan lan egiten duten pertsonak ere, eta, beraz, erantzukidetasunaz, parte-hartzeaz eta zerbitzuak emateko kalitateaz hitz egin behar da. Horregatik, Erantzukidetasunaren eta Partaidetzaren ardatz honen ildoan helburua da irisgarritasunaren balioak partekatzea, erakundeak erantzukide egitea, parte-hartzea eta lankidetzak.

1.1. ALDAKETA. GIZARTE OSOAREKIN IRISGARRITASUNAREN BALIOAK PARTEKATZEA.

1.2. ALDAKETA. ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK ERANTZUKIDE EGITEA IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN BALIOETAN.

1.3. ALDAKETA. KONTSULTA PUBLIKOKO ETA PARTAIDETZAKO EKIMENAK BULTZATZEA.

2. ALDAKETA – IRISGARRITASUNEAN TREBATZEA

PERTSONAK IRISGARRITASUNAREN ARLOAN GAITZEA.

(4. Helburu Estrategikoa PRESTAKUNTZA)

Irisgarritasunaren arloko prestakuntza sustatzea da Estrategiaren helburu bat, diseinu unibertsalaren printzipioa prestakuntza- eta hezkuntza-diziplina guztietan, teknologikoetan eta sozialetan, txertatzea helburu duena.

Helburu hori lortzeko, dauden trebakuntza-maila guztietako eragileak inplikatu behar dira. Horregatik, dagokion ardatzean, Planak hezkuntza-adar eta prestakuntza-eremu guztietarako zeharkakoak diren ekintzak jasotzen ditu, baina, era berean, eremu eta tresna irisgarriak sortzeko eta irisgarritasun-araudia eraginkortasunez aplikatzen dela bermatzeko funtsezkoak diren sektore zehatzak aipatzen ditu.

Ildo horren bidez, irisgarritasunari eta diseinu unibertsalari buruzko ezagutzak txertatu nahi dira lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, lanbide-hezkuntzan, unibertsitatean eta etengabeko prestakuntzan. Gainera, adituen irisgarritasun unibertsalaren arloan eskuratutako ezagutzak aitortzearen eta egiaztatzearen alde egiten da.

2.1. ALDAKETA. HEZKUNTZA-ZIKLOETAN IRISGARRITASUNEAN TREBATZEA.

2.2. ALDAKETA. PROFESIONALAK GAITZEA.

2.3. ALDAKETA. PERTSONEK IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ARLOAN DUTEN EZAGUTZA ETA ESPERIENTZIA FORMALKI AITORTZEA.

3.3. IRISGARRITASUNA SUSTATZEA



Helburu orokorraren aurrekari gisa, izaera dinamikoa duten ekintzak inplementatu behar dira, jarraitzeko asmoa dutenak, eredu berri bat, harremanak izateko modu berri bat bultzatuko dutenak, eremu guztietan irigarritasuna bermatuko dutenak, irtenbide zehatzen bidez, erronka berrietara egokitu daitezkeenak eta berrikuntza teknologiko eta sozialaren laguntzarekin.

1. SUSTAPENA – IRISGARRITASUNA SUSTATZEA

*IRISGARRITASUNA OINARRIZKO ELEMENTU GISA
TXERTATZEA EREMU GUZTIETAN.*

(2. Helburu Estrategikoa SUSTAPENA)

Irigarritasuna sustatzea ekintza zehatzen bidez gauzatu behar da, Estrategiak adierazten dituen eremu guztietan. Estrategia horrek, bestalde, unibertsalki irigarriak diren inguruneak sortzea planteatzen du arlo publikoaren esparruan, eta irigarritasun unibertsala sustatzea arlo pribatuaren esparruan.

Beraz, ardatz honen jarduera-ildoen helburua da Estrategian adierazitako eremu bakoitzeko arduradunek kontuan izatea zer lortu behar duten. Horretarako, administrazio publikoetan lau urteko planak egon behar dira, bai eta inguruneak, produktuak eta zerbitzuak egokitzeko finantzaketa-lerroak ere.

1.1. SUSTAPENA. ADMINISTRAZIOEN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN-EREDU IRISGARRIA SUSTATZEA.

1.2. SUSTAPENA. PLANAREN EREMU GUZTIETAN IRISGARRITASUNA BERMATZEA.

1.3. SUSTAPENA. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EKINTZAK FINANTZATZEA.

1.4. SUSTAPENA. PARTE-HARTZE POLITIKOA BERMATZEA.

2. SUSTAPENA – BERRIKUNTZAREN BIDEZKO IRTENBIDEAK

*IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAREN BIDEZ
IRTENBIDEAK SORTZEA.*

(5. Helburu Estrategikoa BERRIKUNTZA)

Estrategiak helburu hau du: garapen teknologikoen eta sortzen diren zerbitzu berriek pertsonen eta ingurunearen arteko interakzioa eta zereginak gauzatzea erraztea. Horretarako, azken emaitza ukigarriak dituzten irtenbideak sortu nahi dira, kontuan hartuta berrikuntza ez zaiola arlo teknologikoari soilik atxiki behar, baita arlo sozialari ere, pertsonen arteko moduari eta erabiltzailearekiko berrikuntzari ere. Gainera, berrikuntzaren euskal sarea Estrategiarekin bat etortzearen aldeko apustua egiten da, lankidetzaren ireki eta dinamikoen bidez.

2.1. SUSTAPENA. GIZARTE- ETA ENPRESA-SARE SENDO BAT SORTZEN LAGUNTZEA, IRISGARRITASUNERAKO IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK EMANGO DITUENA.

2.2. SUSTAPENA. GIZARTE-BERRIKUNTZAREN BIDEZ LAGUNTZA- ETA ARRETA-EREDUAK BULTATZEA.

2.3. SUSTAPENA. FORMULA ALTERNATIBOEN BIDEZ GATAZKAK PREBENITZEA ETA KONPONTZEA.

Grafikoa 7. Ekintza Planaren ildoak.

1. EGITURA - GOBERNANTZA: IRISGARRITASUNAREN KUDEAKETA

- 1.1 LIDERGO INSTITUZIONALA ETA POLITIKOA IZATEA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKOEUSKADIKO ESTRATEGIAREN EKINTZA PLANAREN EGITURA ARDURADUNA SORTZEA.
- 1.2 EUSKADIKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA EZAGUTZA SORTZEA ETA PARTEKATZEA.

2. EGITURA - ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESPARRU JURIDIKOA

- 2.1 ARAUDIA BERRIKUSTEA, KONTZEPTUAK ARGITZEKO ETA JARDUTEKO IRIZPIDE UNIFORMEAK EZARTZEKO.
- 2.2 ARAUDIA BEHAR BEZALA INTERPRETATZEN ETA APLIKATZEN LAGUNDUKO DUTEN TRESNAK ETA MEKANISMOAK SORTZEA.
- 2.3 ARAUDIA BETETZEKO FIGURAK ETA ESKUMENAK SORTZEA.

1. ALDAKETA - ERANTZUKIDETASUNA ETA PARTAIDETZA

- 1.1 GIZARTE OSOAREKIN IRISGARRITASUNAREN BALIOAK PARTEKATZEA.
- 1.2 ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK ERANTZUKIDE EGITEA IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN BALIOETAN.
- 1.3 KONTSULTA PUBLIKOKO ETA PARTAIDETZAKO EKIMENAK BULTZATZEA.

2. ALDAKETA - IRISGARRITASUNEAN TREBATZEA

- 2.1 HEZKUNTZA-ZIKLOETAN IRISGARRITASUNEAN TREBATZEA.
- 2.2 PROFESIONALAK GAITZEA.
- 2.3 PERTSONEK IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ARLOAN DUTEN EZAGUTZA ETA ESPERIENTZIA FORMALKI AITORTZEA.

1. SUSTAPENA - IRISGARRITASUNA SUSTATZEA

- 1.1 ADMINISTRAZIOAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN-EREDU IRISGARRIA SUSTATZEA.
- 1.2 PLANAREN EREMU GUZTIETAN IRISGARRITASUNA BERMATZEA.
- 1.3 IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EKINTZAK FINANTZATZEA.
- 1.4 PARTE-HARTZE POLITIKOA BERMATZEA.

2. SUSTAPENA - BERRIKUNTZAREN BIDEZKO IRTENBIDEAK

- 2.1 IRISGARRITASUNERAKO IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK SORTZEA.
- 2.2 GIZARTE BERRIKUNTZAREN BIDEZ, LAGUNTZA- ETA ARRETA-EREDUAK BULTZATZEA.
- 2.3 FORMULA ALTERNATIBOEN BIDEZKO GATAZKAK PREBENITZEA ETA KONPONTZEA.

4) EKINTZAK

1.1 EGITURA LIDERGO INSTITUZIONALA ETA POLITIKOA IZATEA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO EUSKADIKO ESTRATEGIAREN EKINTZA-PLANAREN EGITURA ARDURADUNA SORTZEA.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA			
		1	2	3	4
<p>1) ISEKi baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak ematea</p> <ul style="list-style-type: none"> - ISEKen antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua berrikustea, sektore arteko mahai gisa lan egin dezan, eta administrazioen, herritarren, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren, elkargo profesionalen, finen administratzaileen, enpresa-esparruaren eta abarren arteko lankidetzarako bidea izan dezan, ekintza-planean aurreikusitako ekimenak eskala guztietan ezarriko direla bermatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ISEK. 	✓	✓	✓	✓
<p>2) Irisgarritasunaren arloan <u>eskumena duten organoei</u> eta, oro har, <u>herritarrei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua abian jartzea.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Beharrezko egitura zehaztea (figurak, funtzioak, berariazko lan-batzordeak eta metodologia) eta ezartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ISEK. 	✓	✓		
<p>3) Erakunde publikoetan irisgarritasunaren ardura duten erakundeen, organoen, administrazio-unitateen eta/edo langileen sarea identifikatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erakunde bakoitzaren barruan irisgarritasun unibertsala bultzatzeaz, haren jarraipena egiteaz eta ezartzeaz arduratuko diren figurak identifikatzea. Erakunde autonomoak eta mendeko beste erakunde publiko batzuk ere sartuko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ISEK. 	✓			
<p>4) Irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programak idaztea eta eguneratzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 13. artikulua betez, erakunde publiko bakoitzak lau urteko programa bat izan beharko du, eta programa horretan, kanpoko espazio guztiak, eraikinak, azpiegiturak eta erabilera edo zerbitzu publikoko zerbitzuak sartu beharko dira. Erakunde autonomoak eta mendeko beste erakunde publiko batzuk ere sartuko dira. - Erakunde pribatuak, borondatez, lau urteko programa horiek egin ahal izango dituzte, beren jardueraren eremuen ezarpena eta irisgarritasun-baldintzetara egokitzea planifikatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat erakunde publiko, beren eskumen-esparruetan.. 	✓	✓	✓	✓
ADIERAZLEAK					
<ul style="list-style-type: none"> - Erakunde publikoetan identifikatutako irisgarritasun-arduradunen kopurua eta guztizkoarekiko %. - Erakunde publikoen lau urteko irisgarritasun-programen kopurua eta guztizkoarekiko %. - Lau urteko planetan aurreikusitako urteko aurrekontua erakunde publikoetan edo, halakorik ezean, erakundearen aurrekontu orokorretan. Irisgarritasunaren arloan gauzaturako aurrekontua. Erakunde horren lau urteko programarekiko betetze-mailaren ehuneko. 					

- Laguntza eta aholkularitza zerbitzuak egindako aholkularitza-kopurua, eskaera norik egiten duen zehaztuta, bai eta kontsultatutako gaia ere (administrazioak, auzo-komunitateak, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeak, enpresak, ekintzaitza- eta berrikuntza-nodoak, saltokiak eta establezimenduak).

HELBURUAK

Helburu partzialak:

- Administrazio publikoen inbentarioa egitea, bakoitzaren egitura eta antolamendua zehaztuta, eremu bakoitzeko balio-katean bakoitzak dituen eskumenak erakusteko (adibidez, garraioaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen eskumenak daude) eta, horrela, arduradunak eta/edo solaskide egokiak eta beharrezkoak identifikatzeko eta lau urteko planen kopurua eta irismena zehazteko irizpideak izateko. Administrazio bakoitzak bere esparruan egin beharko du ariketa hori. Administrazio publiko bakoitzak aztertu eta informatuko du horri buruz.
- Herri-administrazioek urtean behin jakinaraziko diote ISEKi lau urteko programak prestatu dituztela, bai eta dauden programak eguneratu eta/edo handitu dituztela ere, bai eta programa horiek egiteko eta horietan jasotako esku-hartzeak gauzatzeko aurrekontu-zuzkidurak eguneratu eta/edo handitu dituztela ere.
- Urtero, esparru bakoitzeko arduradunen eta solaskideen izendapenen eta/edo izan daitezkeen aldaketen berri emango zaio ISEKi.

Azken helburua:

- Lau urteko planak erakunde publikoen % 100ean.
- Erakunde publiko guztien % 100ean arduradunak identifikatzea.
- Autonomia Erkidegoan dauden erakunde publikoen errola bat argitaratzea, horietako bakoitzean irisgarritasun-arduradunak identifikatuz.
- Aholkularitza-zerbitzu orokorra abian jartzea.

1.2. EGITURA EUSKADIKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA EZAGUTZA SORTZEA ETA PARTEKATZEA.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA			
		1	2	3	4
<p>5) Irisgarritasunaren Euskal Behatokia sortzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irisgarritasunaren egoerari buruzko diagnostiko-estatistikarako hainbat erakundetatik irisgarritasunaren arloan bildu beharreko informazioa definitzea. - Plan honen garapenak berak sortutako lanen emaitza zabaltzea. - Erreferentziako plataforma digital bat mantentzea. - Irisgarritasunari buruzko diagnostikoak aztertzea, egitea eta zabaltzea eremu guztietan (inguruneen, produktuen, zerbitzuen eta komunikazioen inbentarioa). - Beste lurralde-eremu batzuetako erakunde baliokideekiko identifikazioa eta harremana sartzea, bai estatukoak, bai nazioartekoak. - Beste estatistika-organo batzuekin koordinatzea, irisgarritasunaren arloko adierazleak sartzeko (irisgarritasuna EUSTATen azterlanetan sartzea). - Lehendik dauden beste behatoki batzuekin koordinatzea, hala nola IKUSMIRAK-Gizarte Zerbitzuen Behatokia edo Hirugarren Sektorearen Behatokia. - Erreferentziako argitalpenetan eta plataformetan parte hartzea. - Dauden zerbitzuen irisgarritasun-baldintzen jarraipena, berrikuspina eta egiaztapena. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ ISEK. 	<p>✓</p>	<p>✓</p>		
<p>ADIERAZLEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esparru desberdinetako irisgarritasun-baldintzei buruzko txosten-diagnostiko xehatuen kopurua. - Plan eta zerbitzu sektorialetan sartutako jarraipen-adierazleen kopurua. - Dauden webguneen irisgarritasuna berrikusteko eta egiaztatzeko txostenen kopurua, EN 301 549:2018 "IKT produktu eta zerbitzuetarako irisgarritasun-baldintzak" araua betez. - Webgunearen trafikoa Euskadiko irisgarritasun unibertsalari buruzko informazioarekin. 					
<p>HELBURUAK</p> <p>Helburu partzialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Urtero, EAEko esparru desberdinetako "irisgarritasunaz arduratzen diren unitateek" Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren Web Irisgarritasunaren Behatokira bidaliko dituzte webguneen irisgarritasunaren arloko betetze-mailari buruzko txostenak: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Hezkuntza, Egoitza elektronikoa, Eusko Jaurlaritza (Herriarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza), Osasun Saila, Lanbide (Lana), Zerga Sistema, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala. - Arartekoaren Bulegoak egindako diagnostiko-txostenak eta hartu beharreko neurrien proposamenak biltzea. - EAEko Eraikinen Erroldaren irisgarritasun-adierazleak biltzea eta egiaztatzea. <p>Azken helburua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irisgarritasunaren arloan eskuragarri dagoen informazioaren iraulketa sistematizatzea, informazio hori zabaltzea errazteko eta EAEko irisgarritasunaren benetako argazkia izateko, eta, horrela, metrikak egokitze eta/edo beharrezkoak diren neurriak hartzeko beharra baloratu ahal izateko. 					

2.1. EGITURA ARAUDIA BERRIKUSTEA, KONTZEPTUAK ARGITZEKO ETA JARDUTEKO IRIZPIDE UNIFORMEAK EZARTZEKO.

HELBURUA: Arau-kontzeptuek ahalik eta definizio handiena izan dezaten lortzea, behar bezala bete daitezen.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA			
		1	2	3	4
<p>6) Indarrean dauden araudien artearen egoera (diagnostikoa) berrikusteko lantaldeen definizioari eta diseinuari buruzko dokumentua.</p> <ul style="list-style-type: none"> - ISEKen osoko bilkuran onartzea urte bakoitzerako aurreikusitako lantaldeak, parte-hartzaileen konpromisoa, adituen identifikazioa, osaera, lan-plana, txostenak egitea eta emaitzak zabaltzea barne. 	<ul style="list-style-type: none"> ISEK 	✓			
<p>7) Indarrean dagoen araudia aztertze (diagnostikoa) eta indarrean dagoen araudia egokitzeko lantaldeak martxan jartzea, posizionamendua, interpretazio-irizpideak eta hobetzeko iradokizunak, profesionalen elkargoekin eta desgaitasuna duten pertsonak eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko beste elkarte batzuk ordezkatzan dituzten erakundeekin batera.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jardun-eremu bakoitzean interpretazio-zalantza gehien sortzen duten arau-alderdiak definitzea. - Diagnostikoa hautemandako ahulguneen azterketa. - Eremu bakoitzean indarrean dagoen araudia aztertzea, irisgarritasunari nola heltzen zaion ebaluatzeko eta, hala badagokio, hura txertatzea bultzatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ISEK. 	✓	✓	✓	✓

ADIERAZLEAK

- Sortutako lantaldeen kopurua
- Egindako lan-saioen kopurua
- Lantaldeetan parte hartzen duten erakundeen kopurua

HELBURUAK

Helburu partzialak:

- Erakunde publiko bakoitzak bere jardueraren eremua erregulatzen duen araudia jaso beharko du urtero, eta bertan egindako aldaketak jaso beharko ditu urtero.
- Erakunde publiko bakoitzak bere eskumenak baliatzean antzemandako gorabeherak eta arazoak jasoko ditu urtero, eta intzidentzien berri emango dio ISEKi (adibidez, arau anbiguoak, interpretazio-zalantzak, irizpide edo jarraibiderik eza, horren guztiaren ondoriozko arazoak; zalantzak izan ditzakegu zerbitzu bat behar bezala lizitatzerakoan edo lizentziak eta baimenak emateko irizpideak hartzerakoan).
- Edozein tresna, zerbitzu edo araudi sortzeko eta/edo diseinatzeko ekimenak aurreikusi behar du, aldeztatik adierazita, horrek irisgarritasunean izan dezakeen eragina (prebenitzeko) eta behar bezala ebaluatzeko beharrezkoa den monitorizazioa.

Azken helburua:

Plana egiteko prozesuan sortu diren gaiak eta 2019ko urtarrilaren 31ko saioan planteatuta zeudenak jarriko dira mahai gainean (hurrengo atalean ageri dira). Urtero, aukeratutako gaiekin hiru lantalde abiaraztea sustatuko du ISEKek. Erakunde arduradunek beren eraketari eta emaitzari buruzko informazioa emango dute, egungo Planaren garapenean kontuan har daitezela.

2.2. EGITURA ARAUDIA BEHAR BEZALA INTERPRETATZEN ETA APLIKATZEN LAGUNDUKO DUTEN TRESNAK ETA MEKANISMOAK PRESTATZEA.

HELBURUA: Hainbat arlotako profesionalek beren jardun-eremuetan araudia aplikatzen lagunduko dieten tresnak izatea, formatu irisgarrietan.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA			
		1	2	3	4
8) 7. ekintzan garatutako lanaren emaitza eta 29. ekintzatik lortutakoak jasotzen dituzten txostenak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ ISEK. 		✓	✓	✓
9) Jarduketa-eremu bakoitzean <u>aplikagarri diren irisgarritasun-araudiei</u> buruzko laguntza-eskuliburuak eta/edo -aplikazioak egitea (egindako txostenen emaitzak).	<ul style="list-style-type: none"> ▪ ISEK. 		✓	✓	✓
10) Eremu bakoitzeko balio-katean irisgarritasuna sartzeko gidak prestatzea (prozesuak, prozedurak, zerbitzu-prestazioak) <ul style="list-style-type: none"> - Administrazio Publikoaren eremu bakoitzari zuzendutakoak. - Eremu pribatuari zuzendutakoak. Erakunde pribatuentzako jardunbide egokiekin: marketin inklusiboa, hizkuntza argia, komunikazio-irisgarritasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eusko Jaurlaritzako sail, aldundi eta udal eskudun bakoitzak. ▪ Irisgarritasunaren alde lan egiten duten erakundeak. 	✓	✓	✓	✓

ADIERAZLEAK

- Lantaldeen emaitzak jasotzen dituzten txostenen kopurua.
- Araudiari buruzko laguntza-eskuliburuaren kopurua.
- Irisgarritasuna hainbat esparrutan txertatzeko giden kopurua.

HELBURUAK

Helburu partzialak:

- Urtero, administrazio publiko bakoitzak egin dituen txosten edo gidak bidaliko ditu, edo, hala badagokio, txostena egiteko prozesuaren egoerari buruzko informazioa emango du.
- Eremuen balio-katean aldi berean dauden eskumenen kasuan, gaian eskumena duten administrazio guztiek parte hartu beharko dute, prozesu osoari koherentzia eta irizpidea emateko.

Azken helburua:

- Estrategiaren eremuen % 70ek irisgarritasun-araudi eta irizpide aplikagarriei buruzko eskuliburua izatea.

2.3. EGITURA ARAUDIA BETETZEKO FIGURAK ETA ESKUMENAK SORTZEA.

HELBURUA: Gatazkak prebenitu ahal izatea edo errazago konpontzea.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA			
		1	2	3	4
